



Donostiako turismoa hazi egin da behe-denboraldian, desestazionalizazioa indartuz

EUSTATEko datuak bat datoz Donostia VISIT- BIZI 2017-2021 Turismo Gida-Planaren lan ardatzekin, hots, desestazionalizazioa, nazioartekotzea eta jasangarritasuna. Behe-denboraldian hazkundera nabarmena da: 2019ko otsailean gaualdiak %8,2 igo dira 2018ko otsailarekin alderatuta, eta bidaiariak %11,8.

- Donostian gaualdiak **goi-denboralditik kanpo hazi** egin dira, +%8,2 otsailean, Eustat-eko datuen arabera.
- Turismoaren **nazioartekotze joera** indartzen jarraitzen du: atzerriko turistak %41 baziren 2018ko otsailean, %42ra igo dira 2019ko otsailean.
- Hiria Gipuzkoa eta Euskadiko turismoaren buruan mantentzen da, otsailean, lurraldeko gaualdien hazkunderik handienarekin.

Donostiako lehen alkateordeak, Ernesto Gascok, honakoa adierazi du: *“Datuek erakusten dute bide onean lan egiten ari garela turismoaren desestazionalizazioa indartzeko. Donostia Euskadiko turismoan liderra izaten jarraitzen du, hazkunderik handienak baititu. Gainera, otsailean, hau da, behe-denboraldian, %45 inguruko okupazio- maila lortu dugu, eta horrek sektoreko lanpostuak mantentzea errazten du”*. Era berean, azpimarratu du: *“Gure helburua desestazionalizazioa bultzatzea da, hots, hazkundera handiena behe-denboraldiko hilabeteetan lortzea, beste garai batzuetan saturazioa sahisteko. Horretarako ekitaldi eta jardunaldi erakargarriak antolatzen jarraituko dugu, otsailean egin dugun bezala, helmuga turistikoa interesgarria izateko eta kalitatearen alde apustu egiteko”*.